

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
<p>1. Informazio iturri desberdinak erabilia (testua, grafikoak, mapak, estatistikak, etab.), ekonomia sektore desberdinetan lan egiten duten enpresa motak identifikatzea.</p>	<p>1.1. <i>Ikasleak, ekintza ekonomiko eta negozio desberdinen elementuak identifikatu ditu</i></p> <p>1.2. <i>Ikasleak, iturri desberdinetako informazioa konparatu du</i></p> <p>1.3. <i>Ikasleak, negozio-sistema taula osatu du</i></p> <p>1.4. <i>Ikasleak, enpresa baten errentagarritasuna kalkulatu du</i></p>
<p>2. Enpresa edo ekintza ekonomiko bat leku jakin batean kokatzea egokia den edo ez erabakitzeke gai izatea, faktore garrantzitsuenak kontutan edukiz (lursaila, langileria, diru-laguntzak, merkatua, etab.)</p>	<p>2.1. <i>Ikasleak, ekintza ekonomiko baterako kokapen egokiena aukeratu eta deskribatu du</i></p> <p>2.2. <i>Ikasleak, enpresa bat deskribatu du, interneten honi buruzko informazioa bildu ondoren</i></p>
<p>3. Ekintza ekonomiko jakin batek iraunkortasunean duen inpaktua ezagutzea eta neurtzeko gai izatea. Aldi berean, ekintza horrek iraunkortasunaren alorrean dituen alderdi positibo eta negatiboak identifikatzea</p>	<p>3.1. <i>Ikasleak ekintza ekonomiko baten aztarna ekologikoa eta jasangarritasuna inferatu ditu</i></p> <p>3.2. <i>Ikasleak ekintza ekonomiko baten inpaktua, jasangarritasunaren hiru oinarritzko zutabeetan banatu du.</i></p>
<p>4. Iraunkortasunaren inguruko proposamenak eta iritziak emateko gai izatea. Inpaktu negatiboak gutxitzeko edo deusezteko ideiak irudikatzea, informazio iturrietan oinarrituta, besteekin hitz eginez eta iritzi desberdinak baloratuz</p>	<p>4.1. <i>Ikasleak ekintza ekonomiko jasangarri bat aurrera eramateko proposamenak egin ditu</i></p>